



URRERA!

65. zk.

2018ko iraila

Berrikuntza eta Teknologia Berrien dibulgaziozko aldizkaria

Bulego Teknologikoak argitaratua

Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritza

AURKIBIDEA

- Euskadiko identifikazio elektronikoa
2. or.

- Datuak Babesteko Erregelamendu berrira egokitzea
6. or.

Alboan:

- Kontratazio Publiko Elektronikoa. Plataforma teknologikoaren migrazioa
10. or.

Kontrazala:

- 39/2015 Legearen zenbait artikulua ezartzeko epea atzeratzea
- Edith Clarke, bere denboraren aurretik
12. or.

Erabiltzen errazak diren identifikatzeko eta sinadura elektronikoa jartzeko sistemak izatea da herritarrek Administrazio Publikoetako zerbitzu elektronikoak erabiltzea bermatzeko giltzarrietako bat. Ildo horretan, Izenpe, euskal administrazioetako **ziurtapen eta sinadura elektronikoko** zerbitzu enpresa, soluziobide teknologiko berriak garatzen ari da, hala nola Giltza, B@k, B@kQ... Administrazio Elektronikoarekin lan egitea eta izapideak telematikoki burutzea are gehiago errazten dituztenak. Aldizkari honen lehenengo artikuluan, «Euskadiko identifikazio elektronikoa» izenburukoan, zerbitzu horien ezaugarriak aurkezten dizkizuegu.

Datuak Babesteko Erregelamendu berria errealitate bihurtu da dagoeneko. Araudi berri horrek enpresak zein Administrazio Publikoak beren barne-antolamendua egokitzea behartu ditu, eskakizun berriak betetzeko. Bigarren artikuluan Eusko Jaurlaritzak burututako kudeaketetako batzuk azaltzen dizkizuegu: profil berriak definitzea, betetzeko zereginak eta abar.

Kasu honetan, «Alboan» atalaren gaia Eusko Jaurlaritzaren proiektu beterano eta arrakastatsuenetako bat da: **Kontratazio Publiko Elektronikoa Euskadin**. Datozen hilabeteetan kontratazioa dagoen plataforma teknologikoa eguneratu (migratu) beharko da, orain dela gutxi gehitutako botere esleitzailer berri guztiei erantzuteko.

39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, eguneroko bizitzan egiten ditugun jardueretako asko arautzen dituenez, lege garrantzitsuenetako bat da administrazio guztietako funtzionarioentzat. Hori dela eta, lege horren artikulua batzuetako epea luzatzea erabaki dela jakinarazten dizuegu gure buletinaren kontrazalean.

Azkenik, eta azken aleen ildoari jarraikiz, askok elektrizitatearen arloko aitzindaritzat jotzen duten **Edith Clarke** estatubatuarraren lana nabarmendu nahi dugu.

Euskadiko identifikazio elektronikoa



Berrikuntza eta etengabe hobetzea funtsezkoak dira edozein erakundetarako, eta Administrazio Publikoa ez da salbuespena. Hori dela eta, Izenpek, euskal administrazioetako ziurtapen eta sinadura elektronikoko erakundeak, jarraitzen du herritarrei tramite telematikoz guztiak erraztea helburu duten produktu eta zerbitzu berriak garatzen.



¹ **eIDAS**: ingelesezko siglak dira, eta «*Electronic IDentification And Signature*» esan nahi dute. Informazio gehiago nahi izanez gero, Aurrera aldizkariko 54. zenbakian argitaratutako «*Sinadura elektro-nikoaren Europako erregelamendu berria*» kontsulta dezakezue (2015eko abendua).

Izenperen helburu nagusia da erakundeen zerbitzura jartzea beharrezko diren baliabideak, herritarrek eta enpresek elkarren arteko harremanak eta administrazioekikoak izan ditzaten, bai eta zerbitzu publikoetarako irispidea ere, ongi bermatuta osotasuna, konfidentzialtasuna, gaitzespenik eza eta autentikotasuna; izan ere, **identifikazio eta sinadura elektronikoa** nahitaezko elementuak dira zerbitzu horiek erabiltzeko.

Kudeaketa oso hori zenbait produktu, zerbitzu eta plataforma teknologikori esker lortu da, denak batera eta elkarren osagarri gisa zerbitzuaren maila ona bermatu baitute hamarraldi batean zehar.

JATORRIA

2014ko uztailean «*Europako Parlamentuaren eta 2014ko uztailearen 23ko Kontseiluaren 910/2014 Araudia (EB), barne merkatuko transakzio elektronikoa identifikazio elektronikoa eta konfiantzazko zerbitzuei buruzkoa*», 1999/93/EE Zuzentaraua (aurrerantzean eIDAS¹) indargabetzen duena indarrean jarri zenean, euskal administrazioek, Izenperen lankidetzan, identifikazio eta sinaduraren lankidetzaproiektu bat hasi zuten. Horretarako, dagozkion aldaketak egin ziren, ez bakarrik zegoen identifikazio eta sinadura sistema hobetzeko, baizik eta Izenpek, zerbitzu kalifikatuen erregistro-agintaritza gisa *eIDAS compliance*, eskaintzen dituen zerbitzuak egokitzeko eta erakundeak konfiantzazko zerbitzu emaila bihurtzeko ere.



Hori dela eta, azken finean, langile publikoei eta herritarrei harreman telematikoa errazteko eta harreman hori bermatu eta sustatzeko, **Giltz@** sortu da.

GILTZ@

Giltz@ identifikazio eta autentifikazio elektronikoen konplexutasuna administrazio publikoek ematen dituzten zerbitzu elektronikoz zehaztatetik bakantzea ahalbidetzen duen **plataforma** da.

Autentifikazio mekanismo «perfekturik», segurtasun handiena ematen duenik eta aldi berean testuinguru guztietan erabiltzen erraza denik ez dagoelako sortu da soluziobide hori. Izan ere, esperientziak erakutsi duenez, identifikazio bide egokia erabiltzen ez bada, herritarrek ez dute zerbitzu telematikoa erabiltzen, oso ona eta baliagarria izan arren.

Giltz@ autentifikazio-mekanismoen konbinazioan oinarritua dago, eta administrazioei herritarrentzako eskaintza errazten die, kasu bakoitzean segurtasunaren, kostuen eta erabiltzeko erraztasunaren arteko erlazio onena erabiltzeko. Honako ezaugarri hauek ditu:

- Herritarrek zerbitzu publikoetarako duten sarbide elektronikoa erraztu eta bateratzen du
- Identitatearen hornitzaile eta agente bitartekari gisa jarduten du, hirugarren identitate-hornitzaileen arteko federazioa ahalbidetuz, eta eIDAS araudiarekin bat mailatan sailkatzeko euskarria ematen du
- Aplikazioen arteko autentifikazio bakarra eta onartutako arrisku-mailaren arabera errefortzua errazten ditu. Ezaugarri horrek

aukera ematen du arkitektura banatuan ematen diren benetako zerbitzuak jasotzen dituen herritarren zorro berri bat sortzeko

- Autentifikazio moldakorreko politikak ezartzea ahalbidetzen du
- Identitateei loturiko gako publikoko atributuak (PKI) modu egiaztatuan kudeatzea eta, beraz, sinadura-hornitzaile gisa jardutea ahalbidetzen du
- Identifikazio eta sinadurako beste sistema osagarri batzuekin integratzen da, adibidez, Zain edo Cl@ve-rekin (Estatuko Administrazio Sektore Publikoko plataforma erkidea, identifikaziorako eta autentifikaziorako)



Herritarren ikuspuntutik, Giltz@ administrazioetako atari eta egoitza elektronikoz guztietan sartzeko «giltza» edo «sarraila» komun bihurtzen da, identifikazio elektronikoen bide egokiena modu homogeenokan aukeratzeko eta zerbitzuak eskatzen dituen autentifikazioa edo sinadura erabiltzeko, izapidea dagoen unearan arabera.

BESTE PRODUKTU BATZUK

Dena den, identifikazio elektronikoko baliabideak aldatzen ari dira, eta egokitu egiten dira harremanetan jartzeko modu berrietara eta sortzen diren gailu berrietara; bai herritarrentzat, bai administrazioentzat eta administrazioetako langileentzat.

Hainbestearino, non herritarrentzat B@k/B@kQ sortu den, maila edo bertsio bi dituen soluziobidea: oinarritzakoa, kritikotasunik gabeko izapide eta zerbitzuetarako (B@k); eta goragoko mailakoa, B@kQ deritzona («Qualified» ingelesez, «kali-

fikatua» gaztelaniaz), transakzioetan segurtasun juridiko handiagoa ematen duena, erabiltzeko erraztasun berarekin.

Soluziobide biek honako elementu hauek dituzte:

- ✓ Erabiltzaile-izena, NAN/AIZ zenbakiarekin edo hirugarrenaren erabiltzaile-kodearekin bat datorrena.
- ✓ Erabiltzaileak aukeratutako pasahitz bat
- ✓ Ziurtagiria, Izenperen gordailu zentralizatu batean dagoena, «hodeian» hain zuzen, eta sinatzeko erabiltzen dena. Ziurtagiri hori «kualifikatutzat» jotzen da B@kQ kasuan, eta «kualifikatu gabetzat» B@k kasuan


B@kQ ziurtagiriak, gainera, koordenatu-joko bat gehitzen du, bigarren faktore bat gisa.

Soluziobide horiekin herritarrei identifikatzeko baliabideak eman nahi zaizkie, **irrisgarritasun** maila handiko gailu guztietan **erabilgarritasuna** eta harreman telematikotik behar den **segurtasuna** uztartzen dituztenak, prozedura eta/edo zerbitzu bakoitzaren eskakizunen arabera; horrez gain, modu estandarrean jarritako sinadurak egoki zaindu eta baliozkotzeko aukera bermatu nahi da.

Gaur egun, aurrez aurreko 678 gune dira, Euskadi osoan sakabanaturik; gune horietan edozeinek eska dezake B@kQ. Hiru foru aldundiek, udalek, Eusko Jaurlaritzak (Zuzenean zerbitzua), Osakidetzak, Lanbidek eta KZgunea² sareak kudeatzen dituzte gune horiek.

Identifikazio baliabide propioa edukitzeak erraztu egin ditu sistema desberdinak

B@kQ aktiboen bilakaera



² **KZgunea:** KZgunea proiektuak 2001ean eman zion hasiera bere jardunari, informazio eta komunikazio teknologia berriei (IKTak) buruzko prestakuntza emateko eta teknologia horiek erabiltzeko zentro publikoen sare bat sortzeko asmoz. Helburu nagusia «arrakala digitala» deritzona desagerraraztea zen (eta bada), batez ere honako kolektibo hauetan: etxeoandreak, erretiratuak, langabetuak eta etorkinak.

KZgune bat herritar orok Internet sarea doan erabiltzeko eta erabiltzen ikasteko beharrezko instalazioak dituen zentro publikoa da.

www.kzgunea.eus



³ Biometria:

«autentifikazio biometrikoa» pertsona baten ezaugarri fisiko batzuei (hatz-marka, irisa...) edo bere jokabideari (idazkera eta abar) teknika matematikoak eta estatistikoak aplikatzean datza eta nortasuna ziurtatzeko balio du. Gaur egun, *smartphone* edo *tablet* batzuek dagoeneko badute aukera pertsonak identifikatzeko eta aurpegia ezagutzeko zerbizuetara sartzeko.

Informazio gehiago nahi izanez gero, Aurrera aldizkariako 1. zenbakian argitaratutako «Ezagutze biometrikoa» kontsulta dezakezue (2000ko urria).

Era berean, beste artikulua interesgarri bat ere baduzue, «Sinadura biometrikoa», Aurrera aldizkariako 47. zenbakian (2014ko martxoan), non gai horren lege-alderdi batzuk jorratzen diren.

integratzeko lanak, eta gainera, aukera eman du herritarrei administrazio bakoitzaren identifikazio-sistemetatik migratzeko ibilbideak eskaintzeko.

B@k/B@kQ bezalako identifikazio baliabide propioa edukitzeak beste abantaila bat ere badu: identitate arloan teknologia berri-zaileak (hala nola **biometria**³) ezartzeko eta administrazioak eskaintzen dituen zerbitzuetan txertatzeko erraztasuna. Adibidez, 2017ko ekainean, Izenpek (Lanbiderekin elkarlanean) proiektu pilotua garatu zuen: herritarrak datu biometrikoen bidez identifikatzea, aurrez aurreko arreta emateko. Proiektuak martxan jarraitzen du gaur egun.

B@k/B@kQ soluziobideetako autentifikazioa izaera desberdinetako faktoreekin osatzeko aukerak (adibidez, faktore biometrikoekin) izugarri areagotzen du identifikazio baliabidearen funtzionaltasuna, bateragarri egiten baitu erabilera egoera desberdinekin: herritarrei arreta emateko leihatila; telematikoki izapidetzeko guneak, autozerbitzu moduan (hatz-aztarna erabiliz); gailu mugikorrek (aurpegiak ezagutzeko) edo mahai gaineko ordenagailua (koordinatujokoa). Gainera, legedia garatzen denean (banka sektorean dagoeneko egin den moduan), aukera emango du herritarrei urrunetik aurrez aurre identifikatzeko baliabideak emateko prozesuak eskaintzeko.


Horrez gain, hainbat faktore eta erakunde modu bakar batean Izenpetik kudeatzeak behar den segurtasun tekniko eta juridikoa ematen du, baita, identifikazio elektronikoko baliabide horien zerbitzura dagoen tresna juridikoaren bidez, nortasuna egiaztatzen zerbitzua administrazioen (edo atxikitako erakundeen) eskura jartzeko aukera ere. Laburbilduz, horrek guztiak **elkarreragintza** bultzatu eta administrazio-kudeaketaren eraginkortasuna hobetu egiten du.

Herritarrentzat pentsatutako B@kQ ziurtagiriarekin azken urtean esperientzia izan ondoren, eta gaur egun teknologiaren eta araudiaren aldetiko aukerak kontuan hartuta, «pertsona juridikoaren ordezkariaren» ziurtagiri horiek etorkizunean «hodeian» erabil-

tzeko moduan moldatu behar dute. Bilakaera testuinguru horrek, B@kQ-rekin gertatu den bezala, ziurtagiri bateko kostuak nabarmen gutxitzea ekarriko du (txartelak, inprimaketak, bidalketak). Horrelako ziurtagiri profilen bilakaera, hain zuzen «hodeian» erabiltzeko, urte bereko amaierarako aurreikusten da.

Asmoa zera da: biltegi zentralizatueta igortzea eta titularrak gaur egun B@kQ ziurtagirian bezala sartzea. Bilakaera horrek, besteak beste, honako abantaila hauek emango dizkie:

- ✓ Ziurtagiriak sortzeko eta berriro edo baliogabetzeko prozesua askoz ere arinagoa eta errazagoa da



- ✓ Desagertu egiten da txartela galtzeagatik baliogabetzeko tramitea eta ziurtagiriak igortzea merkeagoa da
- ✓ Ziurtagiriak biltegi seguru batean daude, eta titularrek bakarrik eskura ditzakete; horrela, ez dago txartela lapurtzerik edo txarteleko PIN zenbakia beste batek ezagutzeko arriskurik
- ✓ Murriztu egiten dira nabigatzailea, software bertsioa dela eta eragindako gorabeherak...
- ✓ Irisgarritasun eta erabilgarritasun maila handiagoa da

Horrez guztiaz gain, kontuan izan behar da lortuko dela euskal administrazioetan Giltz@ plataformaren bidezko erabilera homogeneizatzea, baita txartel birtualarekin batera

modu hedatuan erabiltzea ere, Giltz@-n integratutako zerbitzuekin zerikusirik ez duten sinatze-ekitaldietan.

«Izenpek eskaintzen dituen soluziobideekin, herritarren eskura jarri nahi dira erabilgarritasuna, irisgarritasuna eta segurtasuna elkartzen dituzten identifikazio-baliabideak»

Profesionalen profilari dagokionez, egun, definituta dago jada administrazioetako eta euskal sektore publikoko enplegatuentzako identifikazio-baliabidea, autentifikazioa egiteko eta sinadura jartzeko, honako elementu hauek konbinatzen dituena:

- Erabiltzailea: NAN/AIZ
- Bi autentifikazio-faktore, honako hauek konbinatuta:

1. erabilera bakarreko kodea
2. pasahitza, edo ezar daitezkeen beste batzuk

➤ Sinadura elektronikoko ziurtagiri kalifikatu bat, gordailu zentralizatu batean (Giltz@ Profesionala) dagoena eta sinatzeko erabiliko dena

Oro har, euskarri fisikoan (txartela/USB token-a) edo nabigatzailean (softwarea) dauden identifikazio-baliabide guztiak pixkanaka-pixkanaka ziurtagiri-profiletako edozeinetako biltegi zentralizatu seguruetara «migratzeari» esker, herritarrek aukera izango dute zerbitzuen mailari eta zerbitzu elektronikoetarako sarbideari eusteko; aldi berean, sarbide hori administrazioen aurrean identifikatzeko modu berrietara egokituko da, modu horiek besteak bezain seguruak, errazagoak, erabilgarriagoak eta merkeagoak izanik.

Azken helburua, bai Izenpen⁴, bai euskal administrazio publikoetan, erabiltzeko erraza den identifikazio-baliabide multzo osatu bat eskura izatea eta eskaintzea da, plataforma eta zerbitzu teknologikoen nodo batekin, baita malgua eta segurua den azpiegitura komun batekin ere. □



⁴ **Izenpe:** Izenpek sinadurari eta ziurtagiriei dagokienez eskaintzen dituen soluziobide desberdinak honako web orri honetan kontsulta ditzakezue:

www.izenpe.eus





Datuak Babesteko Erregelamendu berrira egokitzea

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokor (DBEO⁵) berria errealitate bihurtu da pasa den maiatzaren 25ean. Ikus dezagun zer jarduketa burutu dituen Eusko Jaurlaritzak eskakizun berriei erantzuna emateko.



⁵ **DBEO:** Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren euskarazko siglak dira (ingelesezko siglak GDPR dira, «General Data Protection Regulation»).

Informazio gehiago nahi izanez gero, Aurrera aldizkariko 61. zenbakian argitaratutako «Datuak Babesteko Europako Erregelamendua» artikulua kontsulta dezakezue (2017ko iraila).

⁶ **DPBL:** 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, datu pertsonalak babesteari buruzkoa.

Europar Batasunak Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra sustatu du. Araudi horren helburua datuak babesteko estandar altuak eta oraingo munduko errealitate digitalera egokituak bermatzea da, eta, pasa den **2018ko maiatzaren 25etik** aurrera, Europar Batasuneko kide diren estatu guztiei aplikatzen zaie.

Espanian, DBEOk DPBL⁶ren eta hura garatzeko erregelamenduko manu batzuk ordeztu dituenez, Eusko Jaurlaritzak hainbat kudeaketa egin ditu sortu den egoera berrira egokitzeko, DPBLra egokitu behar genuenean egin zen bezalaxe. Orduan, Gobernu Kontseiluaren 2002ko uztailaren 16ko Erabakia hartu genuen oinarri, hain zuzen, DPBL Eusko Jaurlaritzan ezartzea ahalbidetu zuena, zeinen bidez proposatu baitziren antolamendua eta eginkizunak banatzeko modua. Era berean, otsailaren 25eko 2/2004 Legea egin zen, datu pertsonaletarako jabetza publikoko fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzkoa.

DBEO

2016ko maiatzaren 4an **Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamendua** argitaratu zen, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituena. 2016ko maiatzaren 25ean jarri zen indarrean, eta 2018ko maiatzaren 25etik

aurrera derrigorrez bete behar da.

Legea betetzeko, Eusko Jaurlaritzak beharrezkotzat jo zuen Euskal Autonomia Erkidegoan datu pertsonalen segurtasuna antolatuko zuen arau juridiko bat edukitzea. Horretarako, 2018ko ekainaren 19ko **Gobernu Kontseiluaren Erabakia** eman zen, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak tratatzen dituen datu pertsonalak babesteko antolaketa-egitura onartzen eta zereginak esleitzen dituena.

Dokumentu horrek datu pertsonalak bildu eta tratatu ahal izateko bete behar diren betebeharrak ezarri ditu, baita datu horien titularrei dagozkien eskubideak ere. Era berean, erakunde guztiek (publikoek zein pribatuek) datu horien segurtasuna bermatzeko jarraitu behar dituzten printzipioak ezarri dira; bestela esanda, DBEO ezartzearen helburuak zehazten dira, hain zuzen ere, honako hauek:

- ✓ Eusko Jaurlaritzan, datu pertsonalak babesteko politika eta prozesuak berrikustea
- ✓ Zeregin eta erantzukizunen eredu bat proposatzea
- ✓ Egokitzeko plana gauzatzea, dagokion legedokumentua eginez (Araudia)
- ✓ Eusko Jaurlaritzan datu pertsonalak babesteko politikari buruzko goi mailako dokumentu bat sortzea



ANTOLAKUNTZA MAILAKO EGOKITZAPENA EUSKO JAURLARITZAN

Aurreko atalean azaldutako guztia betetzeko, hau da, gure antolakundearen DBEO behar bezala ezartzen joateko, Eusko Jaurlaritzak (Administrazioko eta Zerbitzu Orokorrerako Sailburuordetzak bultzatuta eta Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritzak lagunduta) **Bulego Teknikoaren** laguntza eta aholkularitza izan zuen 2017ko urritik aurrera.



Bulego Tekniko horrek burututako lehenengo lanetako bat Eusko Jaurlaritzan zegoen dokumentazio osoa berri-

kustea izan zen, bai Datu pertsonalak babesteko Lege Organikorako egokitzapenarekin loturikoa, bai Segurtasun Eskema Nazionalari (SEN) dagokiona, azken hori ere bete behar dugu eta:

- Datu pertsonalak babesteko politika
- Politika horrekin loturiko prozesuak
- Erantzukizunak dituzten rolak (Fitxategiaren Arduraduna, Segurtasun Arduraduna eta Tratamenduaren Eragilea) eta horiei loturiko zereginak

Dokumentazio osoaren azterketa xehea eta Eusko Jaurlaritzako sail desberdinekin lanbilerak egin ondoren, Bulego Teknikoak erabaki zuen honako jardura hauek egin behar zirela:

1. Politika Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrera egokitzea
2. Prozesuak moldatzea, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra ezartzeko
3. Rol edo profil berriak zehaztea
4. Rolak eta dagozkien erantzukizunak zehaztea:
 - Tratamenduaren Arduradunak (profil horretarako sektoreko zuzendariak proposatu ziren, hau da, lehenengo fitxategiaren arduradunak)

- Pribatutasun neurrien arduradunak (kasu horretan, zerbitzu-zuzendariak proposatu ziren, sail bakoitzean pribatutasun-neurriak abian jartzeaz arduratzeko)

- Datu Babesaren Erreferenteak [kasu horretan, zeregin hori **profil juridikoa** duten Zerbitzu Zuzendaritzako kideek betetzea proposatu zuen Bulego Teknikoak; haien eginkizuna datuak babesteko ordezkaria sailean ordezkatzeari izango da, eta, eginkizunen aldetik (ez hierarkian), horren menpe egongo dira]

Era berean, Eusko Jaurlaritzako Tratamenduaren Eragile nagusiari —gure kasuan, EJI E SA— dagozkion betebeharrak berriki ziren, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren ikuspuntutik. Horretarako, Eusko Jaurlaritzak EJI Eri ematen dion Enkargu Orokorra⁷ aztertu zen, bertan jasota baitaude tratamenduaren eragileei berriaz zuzendutako betebeharrak. Hainbat atal aldatzea proposatu zen.

«Lehendik zegoen Segurtasun Korporatiboko Batzordetik Segurtasun eta Pribatutasun Batzordea eratzea da berrikuntzetako bat»

5. Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean azaltzen diren berrikuntzak berrikustea eta horiei loturiko prozesu berriak proposatzea; horien artean, honako hauek nabarmendu behar dira:
 - tratamendu-jarduereen erregistroa ezartzea
 - datuak babesteko ordezkaria izendatzea
 - pribatutasunaren gaineko eraginaren ebaluazioak egitea (PIA⁸)
 - pribatutasuna diseinuaren aldetik bultzatzea



⁷ Enkargu Orokorra:

Eusko Jaurlaritzak, bere informatika-azpiegitura osoaren euskarri diren informazio-sistemen funtzionamendu ona bermatzeko, EJI Eri agintzen dizkion zeregin edo lan guztiak jasotzen dituen agiria da, bakoitzari loturiko betebeharrak eta zereginak dagokien tarifarekin zehazten dituen.

⁸ Eraginaren Ebaluazioak:

PIA laburdura ere erabili ohi da, ingelesezko siglak direlako: «Privacy Impact Assessment».



⁹ **Datuak Babesteko Ordezkaria (DBO):** pasa den 2018ko ekainaren 1ean (EHAA, 105. zk.) «83/2018 Dekretua, maiatzaren 29koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Datuak Babesteko Ordezkaria izendatzeko dena» argitaratu zen; horren bidez, María Aranzazu Sanabria Llaguno andrea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Datuak Babesteko Ordezkari izendatu zen.

Harremanetarako pertsonaren datuak:
Donostia kalea, 1
PK 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Posta elektronikoa:
dpd-dbo@euskadi.eus
Tel.: 945.018.511

- arriskuak aztertzean segurtasuna bermatzea
- jokabide-kodeak abian jartzea
- ahaztua izateko eskubidea bermatzea
- segurtasun zuloak jakinaraztea
- nazioarteko transferentzien eredia Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren arabera berrikustea
- segurtasun printzipioa hautsi izanaren berri ematea eta kontrol-agintariei eta eragindako pertsoneri jakinaraztea

6. Eusko Jaurlaritzan **Datuak Babesteko Ordezkariaren** figura sortzea⁹. Kasu horretan, Bulego Teknikoak proposatu zuen ahalmen publikoak erabiltzen dituen erakunde publiko bakoitzak datuak babesteko ordezkari bat izan zezan. Ahalmen publiko horiek, hain zuzen ere, eskumen propioa den jarduerak dira, baita Administrazio Publikoak erakundearen eskuetan utzitakoak ere. Hori horrela denez, Eusko Jaurlaritza osorako (sailak, erakunde autonomoak eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoak) pertsona bakarra izendatzea proposatu zen. Proposamen hori gero formalizatu behar zen, dekretu edo erabaki arautzaile baten bitartez. Azkenean, figura berri hori Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari atxikita dago, eta laguntza tekniko-administratiboko unitateak sor daitezke, atxikitako langileekin (laguntza tekniko-administratiboko unitatea, atxikipen-sailetik transferitutakoa).

7. **Datuak Babesteko Batzorde** berri bat

sortzea, datuak babestuta egon daitezen zaintzeko lana koordinatze aldera; Eusko Jaurlaritzako Datuak Babesteko Ordezkaria izango litzateke batzordeburua. («Datu Babesaren Erreferente» moduan izendatutako pertsonak osatuko lukete batzordea)

«Datuak Babesteko Erregelamendu Orokor berria errealitate bihurtu zen 2018ko maiatzaren 25ean»

8. Lehendik zegoen (eta Segurtasun Eskema Nazionalari loturik zegoen) Segurtasun Korporatiboko Batzordetik **Segurtasun eta Pribatutasun Korporatiboa** eratzea; bere eginkizuna, funtsean, informazioaren segurtasuna eta datu pertsonalen pribatutasuna koordinatzea izango litzateke. Batzorde horren buru Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Arduraduna izango litzateke, eta honako kide hauek izango lituzke:
- Informazioaren arduradunak / Pribatutasun-neurrien arduradunak (zeregin hori orain betetzen duten pertsonak, hain zuzen, baina rol berriarekin)
 - Zerbitzu komunaren arduradunak
 - Sistemen ustiapenaren arduraduna



- Eta Datuak Babesteko Ordezkariaren kargua beteko duen pertsona bat
9. Dagoen dokumentazioa berrikusi eta egokitzea. Horren ondorioz:
- Segurtasun-agiria desagertu egin da
 - Erabiltzaileak eta sarbideak kudeatzeko agiria sortu da, baita interesdunen eskubideak gauzatzeko prozedura eta informazioaren gardentasunari buruzko gida ere
 - Segurtasun-agiriaren jardura eremua zabaldu egin da, pribatutasuna ere barnean hartzeko
 - Erabiltzaileei dagokienez, betebeharrak orokor berriak gehitu egin dira
 - Erosketen segurtasunerako gida zabaldu egin da
 - Arriskuak aztertzeke metodologia eta segurtasun-arazoak kudeatzeko prozedura zabaldu egin dira
 - Auditoretza politika egokitu egin da
 - Hainbat klausula aldatu dira Eusko Jaurlaritzak EJI Eri egiten dion Enkargu Orokorrean, baita Datuak Babesteari buruzko Eranskinean ere
 - Mailaka sailkatutako pribatutasun-neurrien taula berria proposatu da
10. Tratamenduen erregistroa kudeatzeko prozedurarekin loturiko agiri berriak egitea; kasu horretan, honako hau ezarri da:
- Tratamendu guztiak erregistroan zehaztuta egon behar dute

- Tratamenduak sortu, aldatu eta amaitzeko prozedurak arautu egiten dira
- Tratamendu bakoitzeko, arduradunak honako hauek egin behar ditu:
 - a) Tratamenduak zehaztu
 - b) Tratamenduen ezaugarri juridiko, tekniko eta operatiboak deskribatu
 - c) Tratamenduak formalizatu
 - d) Behar denean, eraginen ebaluazioa egin
 - e) Zerbitzu Elektronikoaren Katalogoarekin lotu



Egindako lan osoaren ondorio gisa, maiatzaren 15ean, Lakuan, Eusko Jaurlaritzako langileei zuzendutako aurkezpena¹⁰ antolatu zen, hain zuzen ere, burututako lanen ondorioak aurkezteko.

Laburbilduz, azken hilabeteetan egindako lanari esker, gure erakundeak lortu egin du Eusko Jaurlaritzan datu pertsonalen babesa arautzen duen dokumentazioa egokitzea, araudia betetzen dela zaindu behar duten rolen egitura osoa eta rol horiei dagozkien erantzukizunak definitzea, baita datu pertsonalen araudi eta politika —garai berrietara egokituak— sortzea ere. □



¹⁰ **Aurkezpena:** pasa den 2018ko maiatzaren 15ean, Nerea López-Uribarri Goicolea (Administrazioa eta Zerbitzu Orokorren sailburuordea), Xabier Arrieta Goiri (Informatika eta Telekomunikazio zuzendaria), Gloria Barcelo Del Campo (EJIE) eta José Ángel Rodríguez González (Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritza) jaun-andreen kargura, Eusko Jaurlaritzaren Lakuako egoitzan (Vitoria-Gasteiz, Araba) aurkezpena antolatu zen, egindako lanaren ondorioak azaltzeko eta Eusko Jaurlaritzaren egoera aztertzeke, eta horrela, lege-eskakizun berriei aurre egin ahal izateko.

Informazio gehiagorako, Irekian ikus dezakezue ekitaldiari buruzko bideoa:

<https://www.irekia.euskadi.eus/eu/news/45880-gobierno-vasco-detalla-personal-camino-recorrido-adaptacion-nuevo-reglamento-general-proteccion-datos>



Eusko Jaurlaritzak Lakuan duen egoitzan 2018ko maiatzaren 15ean egindako ekitaldiaren argazkia (Vitoria-Gasteiz).



ALBOAN:



Kontratazio Publiko Elektronikoa. Plataforma teknologikoaren migrazioa

«Gaur egun, 500 botere esleitzailerik baino gehiagok erabiltzen dute plataforma, 2015ean 100 baino gutxiago izan arren»

2004. urtean, Eusko Jaurlaritzak Europan aitzindaria zen proiektu bat abiarazi zuen, **Kontratazio Publiko Elektronikoa**ren Eredua izenekoa; urteetan zehar, eboluzionatu joan da proiektua, baita izenari dagokionez ere, orain **Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforma** izenez ezaguna delako.

Proiektuaren helburua kontratazio publikoaren prozesu osoa bilakatzea zen, enpresentzat zein botere esleitzailerentzat erabat telematikoa den tramitazioa izateko, horretarako maila handieneko segurtasuna eta erabilgarritasuna bermatuz, zerbitzua erabiltzen zuten pertsonentzat modu errazean garatuta. Zerbitzuak behin eta berriro **berrerabiltzea** ahalbidetzen zuen proiektua, eskatzen zuten eragile publiko guztientzat.



pena, kontratuen inguruko erre-kurtsoen administrazio organoa, lizitazio elektronikoa, aholku-batzordea eta gardentasun-txostenak.

Etengabeko bilakaera teknologikoaren historia, aurrerapenei jarraikiz, lizitazio elektronikoa lehenengo aplikazioan, adibidez, *framework* direlakorik gabeko *Weblogic 8*-an oinarritutako teknologia erabili zelako.

Ondoren, beste aplikazio batzuk, hala nola lizitazio elektronikorako behin-behinean gaitzea eta kontratatzailearen profila, horiek ere *Weblogic 8* bertsioan garatu ziren, baina Geremua *framework* integratuta. Hurrengo urratsa *Weblogic 11* bertsiora (*framework* berria —UDA— erabiltzen zuen bertsiora, alegia) eguneratzea izan

zen; horretan garatu ziren, besteak beste, Atrio, Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren kontratu eta espedienteen erregistroa. Eta horrela gaurdaino, eguneratze teknologiko berria bultzatzeko lan egiten ari denean.

Historia eta berrikuntza teknologikoari dagokionez, ezin dugu ahaztu proiektuaren izaera berritzailea dela eta Eusko Jaurlaritzak urteetan zehar lortutako sarien eta aintzatespenen kopurua izan dela proiektu horren bereizgarri. Horien artean, honako hauek nabarmendu behar dira:

- ✓ **TECNIMAP-2004** saria, Administrazio Publikoko Ministerioaren eskutik, enpresentzako zerbitzu digital onena izateagatik



BILAKAERAK JARRAITZEN DU

Lizitazio elektronikoa proiektuaren garapenari hasiera ematea baino ez zen, handik aurrera etengabe bilakatzen joan zelako. Izan ere, sistemak hobetu zituen, prozesu eta zerbitzuak gehitu, elkarreragingarritasuna eskaini, sinadura elektronikoko agentziak gehitu eta sektore publikoko kontratuei buruzko legean izandako aldaketetara egokitu egin zen. Etengabeko prestakuntzaren eta laguntzaren bidez erabiltzailearen esperientzia beti kontuan hartuta, gaur egun, proiektuak honako zerbitzu hauek hartzen ditu barnean: **kontratatzailearen profila, kontratuen euskal erregistroa, lizitatzaileren erregistro ofiziala eta enpresen sailka-**

- ✓ 2006ko Administrazio Elektronikoko Praktika onenari saria, Diario Expansión, T-Systems eta Recoletos argitaletxearen eskutik
- ✓ 2006ko «IDABC Programme studies on European eProcurement projects» delako erreferentziako proiektuen zerrendan sartzea
- ✓ «eAdministrazioaren Jardunbide Ona» aitortpena, Europar Batasunaren eskutik (ePractice.eu Good Practice label for 2007)
- ✓ Dintel fundazioaren saria, «2008ko ekimen edo proiektu teknologiko onenari, autonomia-administrazioa administrazio elektronikokoaren arloan».



Azken lau urteotan (gehien erabiltzen denean), lizitazio elektronikoko aplikazioak guztira **1.674 lizitazio-espeditente** bideratzea ahalbidetu du. Adibidez, urte hau hasi denetik, **795 lizitazio-espeditente egin dira, iazko urte osoan baino % 223 gehiago.**

2018. urtea erronka gisa agertzen da proiektuaren bilakaeran.

PROIEKTUAREN BILAKAERA

Aurtengo 2018an, proiektuaren hazkundera datu estatistiko ikusgarriak ekarri ditu, kontuan hartuta Eusko Legebiltzarraren 2010eko apirilaren 15eko agindua eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea indarrean jartzea; hain zuzen ere, datu horien arabera, plataforma efizienteenetakoa bat da, gaur egun **500 botere esleitzailerik** baino gehiagok erabiltzen dutelako. 2015ean erabiltzaileen kopurua ez zen 100era iristen (95).

Aurten ere, iazko datuekin konparatuta, web orriaren erabilera areagotu da: irailaren

15era arte **saioen kopurua 688.154 (+% 163)** zen; web orriak **224.106 erabiltzaile izan zituen (+% 152)** eta **2.529.301 orri bisitatu ziren (+% 166)**. Zerbitzu batzuetan ere areagotu egin da erabiltzaileen kopurua, hala nola kontratzailearen profila eta kontratuen erregistroa 2.176 pertsonak erabili zituzten (+% 150). Hazkunde horrek zerbitzuan hasieran aurreikusitakoa baino lan bolumen askoz handiagoari aurre egin behar izatea ekarri du, eta, zenbaitetan, ordura arte eskaintzen ziren kalitate mailatan izan du eragina.

Hori dela eta, zerbitzu egonkorra eta kalitatezkoa bermatu ahal izateko, proiektuaren arduradunek laster eguneratze-prozesu bati ekingo diote. Hasteko web orria hobetuta, plataforma osoaren migrazio teknologikoaren prozesu konplexua egingo da, zerbitzuak egunero erabiltzen dituzten pertsonen esperientzia —erabilgarritasuna eta irisgarritasuna— hobetze aldera. Lizitazio elektronikoa bezalako aplikazioek praktikan ez dute bilakaera teknologikorik izan abian



«Izaera berritzaileak berezi du proiektua urteetan zehar»



jarri zirenetik, hortaz, argi dago eguneratu behar direla, plataformari atxikitako botere esleitzailerik era masiboan erabiliko dutela kontuan hartuta.

Proiektuak informazio-modulu eta -sistema askori eragingo diela, eta, batez ere, zerbitzua organo esleitzailerik guztiei haien eguneroko lanean ematen jarraitu behar dela kontuan hartuta, migrazioa datozen hilabeteotan egingo dela aurreikusten da. Hortaz, web orri hauetan emango dizuegu proiektuaren eta horren emaitzen berri. □



Euskadiko Kontratazio Publiko Elektronikokoaren web orria: contratacion.euskadi.eus





IXTEKO

39/2015 Legearen zenbait artikulu ezartzeko epea atzeratzea

Langileekiko pentsio-konpromisoak babestearren, kapital-zuriketa prebenitzearren eta hirugarren herrialdeetako nazionalen sarrera- eta bizileku-eskakizunen arloko zuzentarauen transposizioa egiteko den eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea aldatzen duen abuztuaren 31ko 11/2018 Erregearen Lege Dekretuaren bidez, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen zenbait artikulu indarrean jartzeko epea luzatu da.



Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta urtebetera jarri zen indarrean (2015eko urriaren 2ko BOE, 236. zk.), hau da, legea 2016ko urriaren 2an jarri zen indarrean, salbu ahalordetzeen erregistro elektronikoa, **erregistro elektronikoa**, enplegatu publiko gaituen erregistroari, Administrazioaren irispide puntu elektronikoa orokorrari eta **artxibo elektronikoa bakarrari** buruzko aurreikuspenak; izan ere, horiek 2018ko urriaren 2tik aurrera eduki behar zuten eragina. Orain, hala ere, 2020ko urriaren 2tik aurrera edukiko dute eragina, aipatu errege lege-dekretuaren bidez; hau da, **bi urtez** luzatu da epea.

Jakinarazi denez, arrazoa honako hau da: «*Administrazio Publiko eskudunen artean adostu nahi dira benetako **elkarreragingarritasuna** —dagozkien eskumen arloak babesten duena— lortzeko aukerak. Adostasun horrek alderdi funtzional bateragarrien euskarri izan behar duten sistema teknologikoak diseinatzeko markoa emango du, legea indarrean jartzeko gaur egungo epean sistema horiek ez baitira eskakizun horietara egokituta egongo».*

Info+: 2018ko irailaren 4ko BOE, 214. zk.



<http://www.lamoncloa.gob.es/consejodeministros/referencias/Paginas/2018/refc20180831.aspx>

PROTAGONISTAK

Edith Clarke, bere denboraren aurretik

Vassar College ikastetxean ikasi eta Phi Beta Kappa elkarteko (gaitasun akademiko nabarmenak dituzten unibertsitate-ikasleen ohorezko elkarte) kide izan ondoren, Edith Clarkek, matematikan eta astronomian lizentziatuak, irakaskuntzan jardun zuen lehenengo urteetan.

Bere lanarekiko zaletasunari eta 1911. urtean George A. Campbellen zuzendaritzapean American Telephone and Telegraph (ATT) enpresan jasotako prestakuntzari esker (transmisio-lineetako arazoak konpontzeari dago-kionez), Massachussetseko Institutu Teknologikoan (MIT) sartu zen 1918an. Bertan, Ingeniaritza Elektrikoa ikasita, 1919an maisutza lortu zuen, eta MITen titulu hori lortu zuen lehenengo emakumea izan zen.

Texasko egunkari batek egin zion elkarrizketan, emakumeek etorkizunean ingeniartzan izango zituzten aukerei buruz hauxe esan zuen: «*Emakume ingeniariak ez dira behar... baina bere lana ondo egin dezakeen pertsona bat beti beharko da*».

James E. Brittainek idatzitako *From Computer to Electrical Engineer—the Remarkable Career of Edith Clarke* artikuluan laburbildu du elektrizitatearen arloan aitzindaria izan zen emakume horren garrantzia: izan ere, Clarkek sistema elektrikoak diseinatzean agertzen ziren arazoaren ebazpena erraztu eta ebazteko denbora murriztu egin zuten metodo matematikoak garatu eta hedatu zituen, eta horrela, emakumeek, gizonezkoek menperatutako ikerketa arloan aukera berdinak izanez gero, lan berberak egiteko gai zirela eta emaitza berdinak lortzen zituztela frogatu zuen.



[<https://mujeresconciencia.com/2017/11/22/edith-clarke-1883-1959-una-adelantada-tiempo/> argitaratutako artikulua laburpena]

